



Telefonoa: 948 382 240
Mobil 24 ordu: 609 419 444



ANTSOAINGO UDALZAINGOAREN ZERBITZUAK



Udaltzaingoaren Bulego Nagusia
Udaletxe plaza 1, 31013 Antsoain -Nafarroa-
Arreta bulegoaren ordutegia
astelehenetik ostiralera, 09:00-13:30 eta 16:00-19:30.
Faxa: 948 132 200
Posta elektronikoa: policia@ansoain.es
Internet:
www.ansoain.es/ayuntamiento/servicios

Antsoaingo Udaltzaingoa zerbitzu publikoa da. Udaltzaingoa herritarren segurtasuna babestea eta udal ordenantzak betearaztea du helburu; eta, herritarren bizitza-kalitatea eta ongizatea hobetu nahi ditu prebentzioarekin eta laguntza emanez. Udaltzaingoa lana egiten du eraginkorra, efizientea eta aldaketen zein ikaskuntzaren aurrean irekia izateko, berehala egokituz Antsoaingo herritarren eskakizun eta beharrek eskatzen diotenera.

EMATEN DIREN ZERBITZUEN ZERRENTA

- Udalaren bulegoa, 09:00-13:30 eta 16:00-19:30, astelehenetik ostiralera.
- 24 orduko telefono arreta urteko 365 egunetan.
- Herritarrei asistentzia eta sorospena istripuetan, katastrofeetan edo hondamendi publikoetan.
- Herritarren segurtasuna, delituen eta hutsegiteen prebentzioan, bai eta salaketa penalak jasotzerakoan ere.
- Trafikoa kontrolatzea eta arautzea. Bide segurtasunari eta istripuak gertatzeko arriskuei buruzko ikerketak.
- Herriguneko trafiko istripuetarako argitze-agiria egitea.
- Alkoholaren edo drogen eraginpean ez gidatzeko neurriak eta kontrola.
- Bide Segurtasuneko kanpainak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.
- Udal eraikinen, instalazioen eta leku publikoen zaintza eta babesa.
- Gatazka partikularretarako bitartekaritza, eskatzen denean.
- Laguntza integrala Etxeko eta Genero Indarkeriaren biktimentzat eta adin txikikoen babeserako.
- Udal ordenantzak betetzea, hirigintza eta ingurumen arau-hausteak begiratzea.
- Galdutako Gauzen Bulegoa.
- Soinu neurketak, soinuengatik jartzen diren salaketetan.
- Bide publikoan utzitako ibilgailuen tratamendua hiri hondakin solido bezala.
- Udal ordenantzen arau-hausteekin lotura duten salaketak jasotzea.
- Herritarrei aire konprimituko armen txartelei buruzko informazioa ematea (Antsoaingo udal dermioa).
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenetarako informazioa.
- Pertsona minusbaliatuek aparkatzeko txartela lortzeko informazioa.
- 3. kategoriako ibilgailuak aparkatzeko txartela lortzeko informazioa, bertakoentzat.
- Telefono bidezko mezuak, garabiak ibilgailua eramango duela jakinarazteko (proiektuan).

ERABILTZAIEN ESKUBIDEAK ZERBITZUEI DAGOKIENEZ

- Udaltzainak bere burua zenbaki profesionalarekin identifikatzea.
- Udaltzainen jardunari edo zerbitzuei buruzko informazioa eta orientabideak eskuratzea.
- Udaltzainek erabiltzailea errespetuz eta adeitasunez tratatzea; haien eskubideak erabiltzea eta obligazioen betekizuna erraztu behar dizkiete udaltzainek.
- Udaltzaingoko langileei erantzukizuna eskatzea, legez horrela dagokionean.
- Beste batzuk, Konstituzioak eta legediak aitortzen dituenak.

ESKAITZEN DIREN KALITATE-KONPROMISOAK

Udaltzaingoa herritarrekiko kalitate-konpromiso hauei jarraiki emanen du zerbitzua:

1. Larrialdietako dei guztiei erantzutea, gertaeren lekura batezbeste 2 minutuan iritsita eta, gehienez, 6 minutuan.
2. Herritarrei era arduratsuan arreta eta tratua ematea.
3. Kexei eta iradokizunei erantzuna ematea gehienez 10 eguneko epean.
4. Segurtasuna hobetzea eta neurriak hartzea urtean 15.000 orduz patruilatze konpromisoaren bidez.

PRESTAZIO ETA ZERBITZU BAKOITZAREN ARAUDIAREN ZERRENTA

- Segurtasuneko Kidego eta Indarrei buruzko Lege Organikoa.
- Nafarroako Poliziaren Legea.
- Nafarroako Foru Komunitateko udaltzainen erregelamendu markoa.
- Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Antsoaingo gainerako araudi aplikagarria.

EMAITZAK ETA AKATSAK KONPONTZEKO NEURRIAK

Urteko estatistikak, Udalbatzari aurkezten zaizkionak.

- Emaitzak urtero argitara emanen dira webgunean.
Akatsak konpontzeko neurriak:
 - Berehalako jakinarazpena, akatsa edo hutsegitea eragin duten arrazoiak eta hartutako konponbideen azalpenarekin.

HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ETA LANKIDETZARAKO BIDEAK

Herritarrek Antsoaingo talde eta elkarten bitartez parte hartuko dute. Halaber, kexak zein iradokizunak helarazi ahal izanen dituzte Udaltzaingoaren ardurapeko zerbitzuei buruz. Hona horretarako bideak:

- Norberak, zerbitzuaren arduradunari adierazita.
 - Aurrez aurre Udaltzaingoaren bulegoetan.
 - Udaltzainen arduradunari telefonoz hots eginda.
 - Faxez, postaz edo posta elektronikoz.
 - 012 telefonoaren bitartez, informaziorako, kexetarako eta iradokizunetarako.
 - Eskaera orokor batekin, Udal Bulego Orokorretan aurkeztuta edo Erregistro
 - Elektronikoaren bidez ziurtagiri digitalarekin:
<https://sedeelectronica.ansoain.es/eu/>
- Kexak eta iradokizunak gehienez 10 eguneko epean erantzun dira.

INFORMAZIO OSAGARRIA
Arduraduna: Antsoaingo Udaltzaingoaren burua.